

ARAZO EGOERA

# GURE INGURUKO MENDIETAN ZEIN ANIMALIA EZKUTATZEN DIRA?

**ARLOA:** Hizkuntzak eta Natur Zientziak

**MAILA:** LHko 1. eta 2. mailak

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Basora, mendira... joaten garenean, hotsak aditzen ditugu, bidean gorotzak eta lumak, aurkitzen ditugu eta zuhaitzen enborretan zuloak ikusten ditugu. Baina gehienetan ez dakigu nork eginak diren.

---

## **ARAZOA**

Inguruko mendi, baso, larre, erreka eta abarretara joaten garenean, nola jakin zein animalia bizi diren inguru horietan? Kantuak, gorotzak, zuloak, lumak... informazio baliagarria dira.

---

## **XEDEA**

Gure inguruan bizi diren animalia basatiak eta haien bizilekuak eta haien arrisku egoerak zein haiek babesteko jokoerak ezagutu eta komunikatzea.

---

## **HELBURUAK**

- Izaki bizidunen arteko erlazio batzuk (gizakiak, landareak eta animaliak) ezagutzea. Erlazio horien arteko desoreka batzuek oreka ekologikoan duten eragina ondorioztatzea.
- Inguruko animalia eta landareen behaketa zuzena eta zeharkakoa egitea.
- Inguruko animalia eta landare batzuk ezaugarri nabarmenen arabera sailkatzea, tresna eta bitarteko teknologiko egokien bidez.
- Inguruko ekosistemaren batean taldean azterketak eta landa lanak egitea: basoa, larrea, erreka, putzua.
- Izaki bizidunekin lotutako esperientziak eta prozesuak jaso eta era batera baino gehiagotara adieraztea (ahoz, marrazkiz, idatziz).
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta beren ingurunean zaintzeko ohiturak ezagutu eta gauzatzea.
- Izaki bizidunak zorrotz behatzeko eta aztertzeko interesa adieraztea.

## ATAZA

Binaka aukeratutako inguruko animalia basati bati buruzko horma irudia egingo dute, irudi eta testuekin, eta beste ikasleei azalduko diete. Horma irudi guztien erakusketa egingo da amaieran eskolan edo/eta herriko kultur etxean. Animalia basatien klase nagusiak ordezkatuta egon daitezzen saiatuko da irakaslea: ugaztunak, narrastiak, anfibioak, hegaztiak, intsektuak, arrainak.

## JARRAIBIDEAK

- **Irteerak egin** inguruko baso, erreka, putzu, larreetara, eta, bertan jolasteaz gain, behaketak atera eta argazkiak eta grabazioak egin, edota aurkitutakoa bildu eta gelara eraman (lumak, hosto lehorrak, habia eroriak...) Aurretik, ikasleen hipotesiak eta aurretiko ezagupenak landu, eta irteera haiekin prestatu.
- Irteeratik bildutakoa gelara eraman eta **zientziaren txokoan ipini**. Horren inguruko galderak sortu, eta erantzunak jasotzen hasi: irakaslea, ikasleak...
- Naturan hezten wengunean dagoen faunari buruzko **bideotxoak ikusi**, eta horri buruzko elkarrizketa izan, ahal den heinean aurreko galderari erantzunez edo galdera berriak sortuz.
- Zientziaren txokora inguruko fauna eta landarediari buruzko **materialak ekarri**: etxetik, liburutegitik... Baita behaketarako tresnak ere.
- Interneten inguruko **fauna eta landarediari buruzko bilaketa** batzuk egin, irakaslea gidari dela. Hemen zenbait esteka interesgarri:
  - [Biodibertsitatea eta sailkapena](#)
  - [Txikipedia. animaliak](#)
  - [Arriskuan dauden EAEko ornodunak](#)
  - [Hurtzaro ikastola. Fauna](#)
  - [Euskal Herriko Fauna. Elhuyar](#)
  - [Hernaniko ugaztun basati ikusezinak](#)
  - [Goierrri Basatia. Bloga.](#)
- Inguruko faunaz eta landarediaz, eta espezie eta eremu babestuez dakien guraso, zientzialari, teknikari, baserritar, ekologista, basozain... bat **gelara**

## Naturan hezten

**gonbidatu** edo bideoak bidaltzera gonbidatu, galderei buruzko informazioa jasotzeko. Irakasleak edo ikasleek erantzunak jaso edo bideoz grabatu, ikasleen adinaren arabera.

- Irteeratik ekarritako objektuak **mikroskopiaz behatu**: hosto, luma, fruitu... Eta ondorioak atera.
- Xapoketan **karta jokoan aritu** eta ondorioak atera, hasierako galderei erantzuteko.
- Jasotako erantzunekin bikote bakoitzak bere **horma irudia osatuko** du, eta **gelaren aurrean azalduko** du.
- Ikasle guztien artean izaki bizidunak beren ingurunean zaintzeko eta babesteko **jokaerak bildu eta horma irudi batean islatuko** dira.
- Horma airudi guztiekin **erakusketa egingo** da, eta horren berri emateko baliabideak sortuko dira: kartelak, iragarkiak, gonbidapenak... Eta idatziz, irratiz edo telebistaz zabaldu.